


## Europako lehia utzi beharrez



Xabi Fernandezek kideak, Lizarduik, min hartu du eskuan ▶ 6

# Birziklatzeari eta zaborrari buruzko kanpaina jarri dute martxan Tolosan

**ISUNAK** ▶ Zaborra ateratzeko eta birziklatzeko arauak jarri dituzte; betetzen ez dituenak isunak izango ditu ▶ 2



Zaborrak ateratzeko ordutegia jarri dute; bakoitza dagokion edukiontzian bota behar da. LEIRE MONTES



JAIONE ASTIBIA

## Saharatik etorritako bost haur, leitzarren artean

**LEITZA** ▶ Udako bi hilabeteak igaroko dituzte herriko familiek; «osasan azterketa on bat egin eta elikadura egokia izango dute» ▶ 7

**AIZTONDO** ▶

**Udalekuak antolatu ditu Aiztondok gazteentzat**

Gorlizen izango dira abuztu hasieran ▶ 4

**ALEGIALDEA** ▶

**Aurrera-Saiatz taldeko jubenilek oso maila ona eman dute aurten**

Renobalesek eta Galarragak emaitza bikainak lortu dituzte bikoteka ▶ 5

**EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE**  
ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko Ileapandegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Burtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko txandak

San Francisco 39, behea **GUREKIN, TOLOSA**  
Tel. 943 654361 **ZUZENEAN LANERA**

[www.centrosbeta.com](http://www.centrosbeta.com)

## ZABORRAK ▶



Gaikako bilketarako edukiontzia: zaborra botatzekoa, ontziak botatzekoa, paperena eta beirarena. LEIRE MONTES

## LEIRE MONTES

*Lagundu lortzen!* Horixe da herritarrei egiten dieten deia eta, era berean, Tolosako Udalak, Tolosaldeko Mankomunitateak eta UTE Tolosa Garbia enpresak egunotan martxan jarri duten kanpainaren izenburua.

«Zaborren eta birziklapenaren inguruan herritarrek sentsibilizatzea» du ardatz *Lagundu lortzen!* kanpainak. «*Tolosa Txukun* izatea» du helburu, eta hasi da pausoak ematen.

Hiru ekintzatan banatu dute kanpaina ekimenaren bultzatzaileek. Lehena, hain zuzen ere, pegatinena da: «Aste honetan kanpainari buruzko pegatinak jarriko dira zaborrontzietan. Horietan, zaborra botatzeko ordutegia jakinaraziko zaie herritarrei».

Pegatinak ez ezik, liburuxka bat ere banatuko da etxetxetxe. «Bertan era guztietako informazioa aurkitu ahal izango da: zabor bilketa, gaikako bilketa eta kale garbiketa zerbitzuak azaltzen dira. Gainera, indarrean dagoen ordenantzen berri ere ematen da, eta zerbitzuetako telefonoak zeintzuk diren adierazten». Tolosako kaleak 07:00etatik 13:00etara eta 13:00etatik 19:00etara garbitzen dira astelehenetik larunbatera, eta igandetan 08:00etatik 12:00etara. Tutu malguen bidezko garbiketa 06:30etik 12:30era, eta igandetan 07:30etik 10:30era. Goi-presioko urarekin egindakoa, azkenik, 07:00etatik 13:00etara eta 08:00etatik 12:00etara igandetan. Zaborra, bestalde, egunero 21:00etatik 06:00etara biltzen dute. Eta landa-azuetan, berriz, asteartetan, ostegunetan eta larunbatetan, 07:00etatik 01:00etara.

Pegatinaz eta liburuxkaz gain, kaleko informatzaileak ere jarriko dituzte kanpainaren sustatzaileek. «Zaborrak botatzerakoan hartu ditugun ohitura txarrei buruzko informazioa emango dute».

*Lagundu lortzen!* kanpaina Tolosako Jasangarritasunerako Ekintza Planaren barruan kokatzen da. Joan den hilean eraturako Hondakinen Lan Mahiaren proposamena da. Hain zuzen ere, lan mahai horren lehentasunezko ekintzako bat industria, komertzio eta ostalaritzarekin hondakinei buruzko eztabaida irekitzea da.

## Zaborrarri eta birziklatzeari buruzko kanpaina, martxan

‘Lagundu lortzen!’ kanpaina antolatu dute Udalak, Tolosaldeko Mankomunitateak eta UTE Tolosa Garbia enpresak; «‘Tolosa txukun’ izatea» du helburu ekimenak

### HAINBAT DATU, ARAUAK ETA ISUNAK ▶

**Zaborra noiz jaitsi.** Zaborra poltsa ixietan bota behar da zaborrontzietara; 19:00etatik aurrera neguan, eta 20:00etatik aurrera udan. Badago, dena den, salbuespenik: beira, tetrabrik-a, ontziak eta arropa eguneko edozein ordutan bota daitezke dagozkien edukiontzietan.

**Zaborrontzi bereziak.** Beira botatzeko 51 edukiontzi daude herrian, papera botatzeko 57, 51 ontzietarako eta 2 arroparako.

**Kartoiak.** Tolestuz gero, edukiontzi urdinetan —espreski paperarentzat direnak— bota daitezke, eguneko edozein ordutan.

Bestela, 20:00etatik 21:00etara utzi behar dira edukiontzi urdinen alboan, astegunetan soilik; asteburutan ezin dira kartoiak osorik kalean utzi.

**Olioak eta beste hondakin arriskutsuak.** Hilabete bakoitzeko azken larunbatean jasotzen dituzte Triangulo plazan, 09:00etatik 13:00etara.

**Altzariak eta tamaina handiko tresneria.** Tolosaldeko garbigunera eraman daitezke —Anoeta eta Alkiza arteko errepidean—. Edo, bestela, edukiontziaren alboan utzi, asteazkenetan, 20:00etatik aurrera; horretarako, 902 11



Goian, informazio liburuxkaren azala; behean, pegatina. HITZA

92 43 telefono zenbakira deitu behar da aurretik.

**Merkatariak.** Udalak zaborrontzi bereziak jarri ditu merkatarien eskura. Gertuen duten bilketa lekuan utzi behar dituzte merkatariek, eta handik kentzea eta edukiontzia garbitzea haien ardura izango da, era berean. Zaborrontziek saltokiaren barruan egon beharko dute egunez; baita igande eta jai egunetan ere.

**Isunak.** Arau hauek guztiak betetzen ez dituztenek zenbait isun ordaindu behar izango dituzte. Arau-hauste arinak egiten dituztenentzat: 30 eurotik 90 eurora; larriak: 90tik 180era; eta oso larriak: 180etik 300era.

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



FUTBOLA ▶

# Reala izan da Sanjoanetako futbol txapelketako irabazlea

Tolosa CFko mutilek bigarren postua lortu zuten Berazubín jokatu zuten lehiak; nesketan ere Reala izan zen irabazle, taldearen estreinuan finala erraz irabazita



Tolosa CFko alebin mailako mutilak bigarren sailkatu ziren Sanjoanetako futbol txapelketan, Realaren atzetik. HITZA

## INÍGO ASENSIO

Joan den hilaren amaieran jokatu zuten Berazubín alebin mailako San Joan Futbol Txapelketaren XV. edizioa, Joseba Lasaren oroimenezko bederatzigarrena. Zortzi taldetako 110 jokalarik hartu zuten parte guztira. Launako bi talde osatu ziren, eta bertan denek denen

aurka jokatu zuten, talde bakoitzeko bi lehenak sailkatuz. Sailkatu ziren laurak finalerdiak jokatzera pasatu ziren eta beste laurak haien artean jokatu zuten, 5etik 8rako postuak zehazteko. Honela, A taldean Reala eta Racing de Santander sailkatu ziren, Madrilgo Afe eta Eibarren aurretik. B taldean, Tolosa eta Oberena izan

ziren onenak, Rayo Vallecano eta Euskal selekzioaren aurretik.

Igandean nesken San Joan Futbol Txapelketaren lehen edizioa hasi zen, Reala, Athletic, Rayo Vallecano eta Tolosa CFren partaidetzarekin. Hauek Reala eta Athletic sailkatu ziren finalerako; hortaz, Rayo Vallecanok eta Tolosak 3. eta 4. postuak jokatu zituzten, madrildarrek irabaziz.

Mutilen txapelketaren 7. eta 8. postuetarako partida Euskal selekzioak irabazi zuen, Eibarren aurka 2-0eko emaitza lortuz, eta 5. eta 6. postuetarako partidaren Rayo Vallecano nagusitu zitzaion Madrilgo Aferi, 2-1eko emaitzarekin. Finalerdie dagokienez, Realak 1-0 irabazi zion Oberenari, eta Tolosak, binako berdinketaren ondoren, penaltietan kanporatu zuen Racing de Santander.

Igande arratsaldean iritsi zen txapelketaren interes handieneko momentua, bi finalak heldu zirenean. Alebin mutilen finalean Tolosak eta Realak neurtu zituzten indarrak, donostiarrek 5-0eko garaipena lortu zutelarik. Nesketan, berriz, Reala eta Athletic aritu ziren nor baino nor, berriz ere donostiarrek 5-0ekoa lortuz. Honela, Realak garaipen bikoitza erdietsi du aurtengoan. Ai-



Reala izan da aurtengo txapelketako irabazle. HITZA

JUBILATUAK ▶

## Gaur da azken eguna Iruñera joateko izena emateko

Hilaren 12an egingo dute irteera Harizpe elkarteok; bazkaria egingo dute bertan

### I. ETXEBESTE

Harizpe Jubilatuen eta Pentsiodunen elkarteak Iruñeko San Ferminetara irteera antolatatu du hilaren 12rako, astelehena, 09:00etan abiatuko dira San Frantziskotik autobusean, eta lehen-lehenik Iruñeko festa giroa ikustera joango dira. 14:00ak aldera Burlatara joango dira, bertako jubilatuen etxean bazkalteko. Ziza-mizkak eta salda, arkumea txilindron erara, tarta, kafea eta kopa izango dute jateko, eta bazkalondan arrasalde pasa egingo dute Iruñean, Tolosara itzultzeko ordua heldu arte.

### Gaur azken eguna

Elkarteko arduradunek jakinarazi dute gaur dela irteerarako izena emateko azken eguna. Bazkideek 27 euro ordaindu beharko dute txartela jasotzeko, eta gainerakoek, alegia, elkarteko bazkide ez direnek, 30 euro. Bazkideei dagokienez, izena emateko orduan beharrezkoa da bazkide txartel eguneratua aurkeztea bidaia txartela hartzeko. Harizperen egoitzan bertan eman daiteke izena, eta ordainketa egiterokan jasoko dute jubilatuek eta pentsiodunek txartela.

## SAILKAPENA ▶

### MUTILAK

1. Reala
2. Tolosa CF
3. Oberena
4. Racing de Santander
5. Rayo Vallecano
6. Madrilgo AFE
7. Euskal selekzioa
8. Eibar

### NESKAK

1. Reala
2. Athletic
3. Rayo Vallecano
4. Tolosa CF

patzekoa da Realeko nesken taldeak emandako itxura ona, benetan interesgarria hurrengo urtean ligan estreinatuko den talde bat izanik. Honen guztiaren ostean talde partehartzaileen eta epaileen sari banaketari ekin zitzaion. Lan honetan Jokin Bildarratz, Tolosako alkateak, Andoni Imaz Kirolo zinegotziak eta Joselu Andueza, Ingurugiro zinegotziak jardun zuten. Hauekin batera, Jose Luis Arratibel, Gipuzkoako Futbol Federakuntzako ordezkari gisa eta Miguel Izagurre, Tolosa CFko lehendakari ohia, aritu ziren sari banatzen.

**Herri Irratia**  
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

### MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezereen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.





Oraindik ez duzula  
**HITZA**ko kamiseta  
eskuratu!

**ZATOZ GERTUEN  
DUZUN HITZAREN  
EGOITZARA!**

**Bertan  
ditugu  
salgai!**



AIZTONDO ▶ GIZARTEA

## Aiztondok Gorlizen udalekuak antolatu ditu gaztetxoentzat

Uztailaren 12a baino lehen eman beharko da izena Aiztondo zerbitzuen mankomunitateko egoitzan

GARAZI AZKUE

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak udalekuak antolatu ditu uda honetarako. Kanpaldia Gorlizen izango da, 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat. Abuztuaren 8tik 14rako astean izango da irteera.

Astebetetz joango diren 10 gazteek gauza ugari egiteko aukera izango dute udaleku hauetan. Lehenengo egunean, 12:00etan, harrera izango dute guztiek. Arratsaldean, berriz, orientazioa eta BTT saioak izango dituzte, eta gauean ere izango dute zer egin, gau ibilaldian parte hartzeko aukera baitute.

Bigarren egunetik aurrera, goizero, surf ikastaroak antolatu dituzte gaztetxoentzat. Arratsaldean, lehen egunean, surf ikastaro teorikoa antolatu dute; bigarren egunean taulen tailerrera joango dira. Hirugarren egunean kanoetan zeharkaldia egingo dute eta bosgarren egunerako eskalada eta



Gorlizeko aterpetxean egongo dira gazteak. TROKA ABENTURA

rapel jardunaldia izango dute gazteek. Seigarren egunean, arratsaldean, *body board* eta arkuak ibiltzeko aukera dute Gorlizera joango direnek.

Gauean ere egunero izango dute zerbait: jokoak hondartzan, *vivac*-a, jokoak basoan, bideoak eta jaiak. Hau guztia

egiteko parada izango dute Aiztondoko gaztetxoek.

Kanpaldian izena eman nahi dutenek, Aiztondoko bulegoetara joan beharko dute edo 943 69 39 30 telefonora deitu astelehena baino lehen. Kanpaldien prezioa 160 eurokoa izango da.

TOLOSALDEA ▶ KIROLA

## Euskal Herriko Segalari Txapelketako kanporaketa Zizurkilen izango da

Igandean 19:00etan hasiko da norgehiagoka; 'Urki' bertan izango da

G. AZKUE

Euskadiko Segalari Txapelketako kanporaketa jokatuko dute asteburu honetan Zizurkilen Euskal Herriko segalariek. Pasa den igandean izan zen aurreko sailkapen proba, eta han, sei segalarik egin zuten aurrera. Igandean Zizurkilen jokatuko den norgehiagokan beste bi sailkatuko dira final-laurdenetarako; 19:00etatik aurrera izango da ikuskizuna.

Aurreko igandean Azkaraten (Nafarroa) izandako kanporaketa proban, besteak beste, Aranalde gazteluarra sailkatu



Igandean arituko da Urki. HITZA

zen, eta Zizurkilgo proban, berriz, Jesus Mari Ormaetxea *Urki* ariko da beste hiru segalarirekin lehian. Ignacio Goiloaga eta Unai Berriozabal bizkaitarrak eta Gorka Juaristi arabarra ariko dira, hain zuzen, *Urki* rekin batera. Euskadiko txapelketako final-laurdenetarako txartelaren bila.

Igandean sailkatutako sei segalariek eta igande honetan sailkatuko diren beste biek finalerdiak izango dituzte uztailaren 18an Lantzen (Nafarroa). Finala, berriz, Larraiotzen (Nafarroa) jokatuko dute abuztuaren.

PILOTA ▶

# Bikoteka indartsu Aurrera-Saiaz taldeko jubenilak

Jubeniletan emaitza onak lortzen ari dira Ugaitz Renobales alegiarra eta Eneko Galarraga oriotarra; aurtengo denboraldian txapelketa asko irabazi dituzte

**OLAIA ESKITXABEL**

Bikoteka emaitza ezin hobeak lortu dituzte Ugaitz Renobales eta Eneko Galarragak; orain arte izena eman duten

txapelketa gehienak irabaztea edota txapelkunorde titulua eskuratzeko lortu dute.

Jubeniletan eta bikoteka lorpen garrantzitsuak eskuratu dituzte gazteek: Gipuzkoako

eta GRAVN-eko txapelkun, Euskadiko txapelketan txapelkun-orde...

Pasa den igandean Usurbilgo txapelketako finala jokatu zuten; 22-12 irabazi zieten aurkariari. Renobalesi, bestalde, txapelketako pilotari onenaren saria eman zioten.

«Batera jokatzeko dugun lehenengo urtea da eta oso ondo konpontzen gara», azaldu du Renobales alegiarrak lortutako emaitzen inguruan galdetutakoan. «Bikote ona osatzen dugu», jarraitu du Galarraga bikotekideak. Batak bestearekiko hitz politak besterik ez ditu; izan ere, beraiek azaldu bezala, «pilotalekuan ez ezik, kanpoan ere lagun onak», dira.

Eneko Galarraga «atzelari ona, kolpe eta indar handikoa» dela azaldu du Renobalesek; alegiarra, berriz, «aurrelari arina eta tantoa ondo bukatzen dakiena» dela esan du oriotarrek.

Gaur Antiguako txapelketan izango dira; bertan irabaziz gero, final-laurdenetarako sailkatuko dira. «Finalera iristeko esperantza eta gogoia behintzat ez zaizkigu falta», dio Galarragak. Uztailaren 14ean, bestalde, Oretetako txapelketan finalerdiko partida jokatuko dute.



Txapela, Kopa eta urdaiazpiko bana lortu zuten Usurbilen. P. RENOBALES



Ugaitz Renobalesek pilotaririk onenaren saria jaso zuen Usurbilgo txapelketan antolatzaileen eskutik. PATXI RENOBALES



**UGAITZ RENOBALDES**  
ALEGIARRA, 18 URTE

«Bikotez aldatzea ona izaten da; baldintza desberdinetara egokitzen jakin behar du pilotariak»



**ENEKO GALARRAGA**  
ORIOARRA, 18 URTE

«Aurrelari arina eta tantoa ondo bukatzen dakiena da Ugaitz Renobales; bikote ona osatzen dugu»

da; pilota eta pilotaren abiadura aldatu egiten dira», gehitu du Renobalesek.

Horrez gain, datorren denboraldian bikote gisa gutxi jokatuko dutela azaldu dute: «Bikotez aldatzea ona izaten da; baldintza desberdinetara egokitzen jakin behar du pilotariak», adierazi dio HITZARI Renobalesek.

**Laster afizionatueta**

Hemezortzi urte dituzte Renobalesek eta Galarragak, eta jubeniletan azken urtea dute; hurrengo denboraldian afizionatueta mailan ariko dira. «Lehenengo urtean sufritzea tokatuko zaigu», adierazi du Eneko Galarragak. «Afizionatueta jokatzean saltoa nabarrituko

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

▶ 112

- Alegialdea. Osasun z.: 653212
- Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
- Asteasu. Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain. 68 33 61
- Bidegoian. Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
- Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza. Osasun z.: 948 510800
- Lizartza. Medikua: 68 20 77
- Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Asunzioz klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aitzondo.
- Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

**GARRAIOAK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 96

**GUARDIAKO FARMAZIA**

Gaur. Quetglas, M.A, Euskal Herria 46 (Ibarra). 67 32 74  
M.Plaza, Elbarren 36 (Leitza).  
Telefona: 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona\_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaidea.** 687 41 00 22  
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaldea.** 687 41 01 18.  
leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**LAN ESKAINTZA**

**Mendiko lanetarako.** Mendiko lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Berastegi, Leitza eta Larraun bailararako. Bertakoa bada hobe. Telf: 619 23 24 45.  
**Etoko lanak.** Alegian emakume bat behar da etoko lanak egiteko. Ordutegia, 10:30etik 14:30era. Telf: 943 65 30 34. (Arratsaldetan deitu).  
**Taberna.** Neska bat behar da barrarako. Telf: 943 69 19 33.

**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK  
LANPOSTU BATERAKO  
DEIALDIA**

**LANPOSTUA:**

- 2 urteko gelarako irakasle laguntzailea eta ikasle hauen ardura izan jangelan.
- Urte batez.

**ONINARRIZKO PROFILA:**

- Bailarakoa izatea
- Euskara (EGA) titulua
- Irakasle titulua

**KURRIKULUMAK**  
Anoetako Herri Ikastola, Ergoien 5 • 20270 ANOETA  
anoeta@ikastola.net-era bidali uztailaren 15a baino lehen.

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

IBARRA ▶ BELA

# Fernandezek bertan behera utzi du Europako Txapelketa

Txapelketan ontzia irauli eta Iker Martinez de Lizarduik eskuan min hartu du



Xabi Fernandez eta Iker Martinez de Lizardui, aurreko proba batean. HITZA

DANI GIBELALDE

Xabi Fernandez ibartarrak bertan behera utzi behar izan du Italiako Di Garda lakuan jokatzen ari zen Europako Bela Txapelketa, nabigatzen bikote-kide duen Iker Martinez de Li-

zarduik eskuin eskuan min hartu zuelako. Zoritzarreko gertaerak oztopatu du, hortaz, Fernandezek onenekin batera txapela lortzeko ahaleginetan aritzea.

Herenegun, txapelketako lehen egunean hartu zuen min

Lizarduik, bigarren txanda jokatzen ari zirela ontzia irauli zitzaizenean. Lehen txanda, lider-tzan amaitu zuten Fernandezek eta Lizarduik. Abuztuan jokatuko dituzten Olinpiar Jokoak prestatzen jardun beharko dute orain, buru-belarri.

## Beste irauli bat

Orain gutxi Kielgo Nazioarteko Estropadan (Alemania) lortutako emaitzarekin pozik dira biak. Azkenean zortzigarren postuan amaitu zuten, baina irabazle izan zitezkeen ezusteko irauli batengatik izan ez balitz. Lehen postuan ziren iraulia gertatu zenean, eta horregatik amaitu zuten zortzigarren azken sailkapenean.

Bestalde, Alemaniako estropada hori bost egunetan jokatzekoa zen, baina bi egunetan proba bertan behera geratu zen, batean haize handia egiten zuelako eta bestean ez zegoelako ia haizerik.

Fernandezek eta Martinez de Lizarduik ondo baino hobeto dakite zer den Herbereetan, Grezian, Norvegian edo Espainian irabaztea. Haiek izan dira, hain zuzen ere, Europako Zirkuitoan nagusitu direnak azken urteotan. Ezbairik gabe, haiek dira Olinpiar Jokoetarako faborito nagusiak. Ea ez duten ordura arte beste ezbeharririk izaten.

IBARRA ▶

## Koadrila Egunerako bilera gaur arratsaldean

Ibarrako jaietako Koadrila Egunerako bilera izango da gaur 20:00etatik aurrera Sendi Ekintzan, Urrustaka koadrilak antolatuta. Bilera koadriletako kideak joatea garrantzitsua dela azpimarratu dute: Koadrila Eguneko ekitaldiak finkatu, eta bazkarian zenbat lagun izango diren jakiteko.

ELDUAIN ▶

## Uztailaren 18an Castejonera joateko bidaia

Jubilatu, pentsiodun eta eliza garbitzaileentzako Castejonera bidaia antolatuta dute. Nafarroako Erriberatik monastegi eta bodegen bidaia egingo dute hilaren 18an. 08:00etan irten eta 09:30ean gosalduko dute; 10:30ean Villa de Castejon hotelera iritsiko dira. Handik bodega bat ikustera joango dira eta ondoren Tulebrasko Zistertar monastegira. Denbora izanez gero, Nuestra Señora del Romero basilika ikusiko dute, eta ondoren bazkaldu. Izena emateko udaletxera azaldu, edo deitu 943 68 31 21 zenbakira 09:00etatik 13:00etara.



## Dandorradako oraingo eta lehengo kideak elkartu dira bazkarian

**IBARRA ▶** Danborradaren 25. urteurrenaren atarian, ekitaldi desberdinak egiten ari dira antolatzaileak. Danborradan aritutako lehengo eta oraingo zenbait kide bildu ziren joan den larunbat eguerdian plazan, guztira 28 bat lagun —ezkerreko argazkia—. Ondoren Ibarrako Kirol Elkartearen bazkaldu zuten

guztiek. Giro ona izan zen nagusi Ibarrako Kirol Elkartearen egindako bazkarian. Mokadutxo batzuk egin ondoren, saihets-hezurra entsalarekin eta tarta izan zuten bazkaltzeko. Kontu kontari, solasean, bazkaloste polita egiteko aukera izan zuten parte-hartzaileek. Eskuineko argazkian, kide batzuk bazkarian. D. GIBELALDE-HITZA



**www.tolosaldeko hitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Mariam, Bodda, Hoceine, Moustafa eta Salek etorri dira

Astearte goizean atera eta atzo eguerdian iritsi ziren Saharako kanpamentuetatik udako bi hilabetetarako



Zonaldera etorri diren saharar umeak, Leitzara iritsitakoan. J. ASTIBIA



Hemengo familiekin elkartu zireneko unea. J. ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdian iritsi ziren Leitzara Mariam, Bodda, Hoceine, Moustafa eta Salek, Saharako neskatu eta mutikoak udako bi hilabeteak herrian igarotzera.

Astearte eguerdian atera ziren Argeliatik, Tindufeko kanpamentutik, hegazkinez eta biharamon goizez, 08:30ean ailegatu ziren Iruñera, eta hama-

honetan ezustekoa jaso duenik ere izan da: aita ikusten ez zuela ia sei urte eramaki, delegatu gisa etortzea tokatu.

Normalean atzerapenez ibiltzen badira ere, atzokoan hitzordua baino lehenago ailegatu ziren eta familiak etorri arte, noski, hain bidaia luzea, halako aldaketa nabaritu, nekearen eraginez... ixil-ixilik eta lotsatu samar egon baziren ere, beren aita-amak ikusi ahala, berehalakoan aldatu zitzaizkien aurpegiak eta, irribarreaz espainetan, elkarren berriak jakinarazteari ekin zioten —etxeko berriak, kanpamentuak, senideenak...— denborarik igaro izan ez balitz bezala.

Leitzakoak, bat izan ezik, aurreko urteetan hemen izandakoak dira eta familiak jadanik ezagutzen dituzte, hauetatik asko kanpamentuetan izanak baitira. Beste urteetatik umeek ere elkar ezagutzen dute eta, iaztik egotekoak izanagatik, batzuk elkartu eta telebista ikustera joan ziren, besteak, berriz, bizikleta non ote zen jakin nahi... Udako martxa berehalakoan hartu zuten. Batzuk «bai mehea etorri den», zioten.

Hilabete pare bat dituzte aurrean, indarrak hartu, osasun azterketa on bat egin eta susperraldi eta atsedenaldia hartzeko, Saharako desertuan, Argeliako lurretan, Sahara herriak dituen kanpamentuetara bueltatu aurretik.

LURDES BALANTZATEGI ▶ ELKARTASUN TALDEKO KIDEA

## «Eguna, 5 litro urekin igaro behar dute»

Saharar herriarekin elkartasun taldeko kidea da Lurdes Balantzategi.

**Zenbat urte daramazue ekimen honekin?**

Leitzara duela bost urte etorri ziren lehendabiziko aldiz, 1999ean. Orduan zonaldera 24 etorri ziren, aurtan, berriz, 12 familiek parte hartu behar dute.

**Zenbat ume ateratzen dira?**

Orohar, 10.000 ume ateratzen dira kanpamentuetatik, 8-12 urte bitarteko neskatu-mutikoak. Hauetatik asko eta asko osasun arazoak dituztenak dira eta sendabidea izateko bidualtzen dituzte honantz. Beste batzuk, berriz, eskolan notarik hoberenak lortu dituztelako, sari gisa etortzen dira. Hauek gero, Kuba, Libia, Mauritania edo Argeliara joaten dira, gehienetan, medikuntza ikastera.

**Zer helburu du ekimen honek?**

Helburu bakarra: hango umeak osasun aldetik azterketa on bat jaso eta jarraipena izateko, bide batez, elikadura aldetik ere suspertuz eta indartuz. Kontuan hartu behar da Sahararako desertuan daudela kanpamentuak eta garai honetan, 50°-tako beroa egiten duela han eta eguna 5 litro urekin igaro behar dutela... denerako. Ezinezkoa da, edo oso zaila han egotea bakarra!

**Zein da hango bizimodua?**

Saharako basamortuan daude, kanpamentutan. Argeliako lurretan: Tinduf Argeliako militarren base bat da eta aireportua bertan dago. Baina jendea, Sahara, beren herriko izenak dituzten Aiun, Smara, Auser eta Dagla deritzen kanpamentutan, *wilayatan* bizi da. Familia



J. ASTIBIA

bakoitzak adobezko etxe bat du eta gero *haimak*. Ez dute urik eta ez argirik ere: ura kamioi zisternetan eramaten diete Argeliatik eta kontaktatu dute; argia, berriz, hemengo familiak eguzki-plakak bidali dizkietenek bakarrik dute.

**Zertatik bizi dira?**

Laguntzatik. Han ez dago deus ere: hondarra bakarra ikusten da alde guztietan. Euskal Herriatik, Jaurilaritzak konboi asko bidaltzen ditu, baina ez Nafarroakoak. Bestalde, ACNUR delakoak laguntza kupoa zuen lehen, baina orain hori ere murrizten hasi dira, autonomia onartuarazi nahi dietelako presio modura, eta jadanik janaririk gabe geratzen hasiak dira, botikarik gabe ere...

**Zein da gatazkaren egoera?**

Erreferenduma egitea urtero erabakitzen dute, baina ez dute aurrera ateratzen. Sahararrak ez daude Marokon sartzeko prest. Han bizi direnak badira, baina hain daude hankapetutak: orain, mugak irekitzen hasi direla eta, kanpamentutik familiakoak bisitatzen joan eta, berriz ere, itzuli egiten dira, hain egoera larria ikusita. Nahiago dute desertua. ◀

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

**Tolosa.** Korreo kalean 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Erremontari kalean apartamentuak salgai: bi logela eta logela bakarrek. 2 logelakoak 25.500.000 pza eta gela bakarrek 23.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre auzoan etxe abikia salgai;

lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua. Polita. 76.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Kondeko Aldapan etxebizitza salgai, 90 m<sup>2</sup>-koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Amarozen etxebizitza alokairuan. Hiru logela, kanpoaldera begira, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Bidebietetan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Trianguloan garaje marra salgai. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguru garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Igaralden 120m<sup>2</sup>-ko etxebizitza

salgai, 4 gelakoa, egongela eta jangelarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Andoain.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Ibaigain kalean 86 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera. Mandio. 669 87 19 09.

**Anoeta.** Eraikuntza berriko etxebizitza, 97 m<sup>2</sup>-koa, 3 logela, bainugela, trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Alegia.** Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Bi logela. 23.700.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

**Alegia.** Bigarren eskuko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Amezketeta.** Duplexa salgai; 70 m<sup>2</sup>-koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. 28.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

**Goierri.** Bifamilientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio. 669 87 19 09.

**Ordizia.** Etxe abikiak salgai. Berriak. Mandio. 669 87 19 09.

**Elduain.** Etxe abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.

**Aia.** Azken etxebizitza berria. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelako apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

**Corella.** Etxe abiki rustiko berriak, portbarekin, 2 gela, bainua eta sukalde horritua. Berria, 1.000 m<sup>2</sup>-ko terrenoarekin. Mandio 669 87 19 09.

### LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. 669 87 19 09

**Tolosa.** Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. 669 87 19 09.

**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabiloi berria, eta bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. 669 87 19 09.



**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 8a, osteguna ▶ II. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Aiegia, Aitzia, Alzo, Ametsketa, Ansoa, Baleriano, Berasteg, Edoain, Herrialde, Ibarri, Inara, Larnai, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurerria

Kultura Saila

Eusko Jaurerria

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

14

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ibarra.** Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.

**Ibarra.** Koadrilan Eguneko bilera. 20:00etan, Sendi Ekintzalo lokalean, Urrustaka koadrilak antolatuta. Beharrezkoa da koadrila bakoitzeko kide bana, gubxienez, batzarrera joatea, bazkarian zenbat lagun izango diren jakiteko.

**Tolosa.** XIV Orduko Ibilaldiko bideoa Shanti eta Dickens tabernetan ikus eta eros daiteke.

**Tolosa.** Harizpe elkarteak irteera antolatu du Iruñeko sanferminetara hilaren 12rako. Izena ematean 30 euro ordaindu behar dira, eta bazkideek 27 euro. Txartelak erosteko gaur da azken eguna; elkartearen egoitzan dira salgai.

**Tolosa.** Tolosa CFren XXXVI. Paleta Txapelketa. Zabaleta-Urdanpileta/Orbegozo-Goñi; Yugeros-Aldazabal/Lakunza-Agote; eta Lontxo-Nazabal/Begoa-Goikoetxea. 19:00etan hasita, Berazubiko frontoian.

**Villabona.** Euskal Herriko Hiriburuak Uztartuz mendi irteera, Pipaona eta Bastida artean. Igandean, Aizkardi Mendi Elkarteak antolatuta. Izena emateko azken eguna, gaur (943 69 44 58).

### ERAKUSKETAK

**Altzo.** Altzoko erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona erakusketak haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago: 943 65 24 13.

**Hernalde.** Luis Mari Nuñezen koadroak Ostatuan dira ikusgai egunotan.

**Ibarra.** Argazki rallyan herriko haurrek ateratako argazkien erakusketak Kultur Etxean. Hilaren 16a bitarte.

### MUSIKA

**Tolosa.** Los Veracruz talde eibartarraren emanaldia. Bihar, 22:30ean, Plaza Berrian: musika mexikarra, boleroak... Udai Kultur Batzordeak antolatutako ekimena da, Gau Giro programaren barruan.

# Adinekoen festa berezia

**TOLOSA ▶** Igandean egin zuten urteroko bazkaria Ferialekuan Harizpe eta Iturriza elkarteek antolatuta Udalaren babesarekin



Igandeko bazkariko irudi bat, ehunka jubilatuta Ferialekuan bazkaltzen. KLISK-DV

### ERREDAKZIOA

**T**olosako adinekoek urtero bazkaria izaten dute garai honetan, Harizpe eta Iturriza elkarteek antolatuta Udalaren babesarekin. Igandean izan zuten egun handi hori. Ehunka jubilatuta —gizonezkoak eta emakumezkoak— bildu ziren Ferialekuan. Bazkaria izan zen ekitaldi garrantzitsuena, baina opariak, zozketa eta musika ez zen faltatu. Iñigo Perurena pianojole eta imitatzailerik tolosarra animatzaile zela. Ederki pasatu zuten eguna eta eguneko protagonistak izan ziren, behingoz.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**

Maialen eta aitaxo (Tolosa). Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**

Maialen Santxez Armendariz. Gaur 4 urte. Zorionak bere aita, ama eta anaia Mikelen partetik.



**URTE ASKOAN**

Kizkitza Larrea (Leizta). Zorionak eta ongi pasa etxeko guztien eta amonaren partetik.

# HITZA,

## zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara  
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!



# Belztu azala eguzkirik hartu gabe

Eguzki eta solarium gabe belzteko aukera. Azken berrikuntza Tolosan, 3 minutu besterik ez beltz egoteko.

Uda honetan goza ezazu azalik beltz eta erakargarrienekin.

Modu eraginkorra eta ziurra.

**Etorri eta ikusi emaitzak.**

**Sorrotxategi**  
Nagusia, 2-1 • TOLOSA • 943 67 57 39